

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2022ko EKAINAREN 30ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2022ko ekainaren 30ean, atsaldeko 15.30 orduetan, Maite Arana Perez Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira bilkura honetan.

ZINEGOTZIAK: Vicente Garcia Momblona
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez
Maialen Alonso Labandibar
Mireia Ruiz Delgado
Aitor Beistegui Fiallegas


Bere ezin etorria adierazten dute: Jesus Maria Tejada Cantero

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:**
 - **2022ko maiatzaren 26an egindako ohiko bilkura/ Sesión ordinaria de fecha 26 de mayo de 2022.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
- 4. 2022 urterako udal langileen opor egutegien onespena./ Aprobación de los calendarios de vacaciones del personal municipal para el año 2022**
- 5. 2022 urterako Erroitz Baltzu Mugatuak, Aiurri hamaboskarirako, eginiko diru-laguntzaren eskaeraren onespena./ Aprobación de la solicitud de subvención de la Sociedad Limitada Erroitz para el año 2022, para la revista quincenal Aiurri.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

6. Tolosaldea Garatzen-i 2022 urteko 2. Ekarpena burutzeko onespena ematea./Aprobar el pago a Tolosaldea Garatzen, de la 2. Aportación correspondiente al ejercicio 2022.
7. 2021eko Kontu Orokorraren behin betiko onespena, hala bada/Aprobación definitiva de la Cuenta General del 2021
8. 2022 urtean Oporrak bakean programa burutzeko diru-laguntza eskaeraren onespena./ Aprobación de la solicitud de subvención para la realización del programa Vacaciones en Paz correspondiente al ejercicio 2022.
9. Guraso Elkarteak eginiko diru-laguntzaren azterketa./Estudio de la solicitud de ayuda económica de Guraso Elkartea.
10. Beste batzuk/Otros.
11. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN ADIERAZTEN DEN UDALBATZARRETAKO AKTA ONESTU, HALA BADAGOKIO

- ▣ 2022 urteko maiatzaren 26an egindako Udalbatzaren ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren aho batez onesten dute.

BIGARRENGO PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA


Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 50/2022tik 76/2022ra Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARRENGO PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:


URKAMENDI	605,70
MAQUELSA	57,83
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	5.265,71



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	959,84
TELEFONICA	0,68
TELEFONICA	214,65
TELEFONICA	99,83
KIROLZER	42,60
PIROTECNIA FIESTA	71,21
MAIALEN SARASOLA	72,60
NORTEGAS	41,22
NORTEGAS	187,89
ARKAITZ JIMENEZ	229,50
SVRNE MUTUA DE SEGUROS	1.036,55
SETALDE	80,77
MAITE ARANA	42,25
IZFE	1.989,53
IZFE	65,34
IZFE	38,66
IZFE	7,50
CONSULTORES DE GESTION PUBLICA	363,00
ZIZURKIL ELEKTRIZITATEA	1.867,60
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	414,60
TELEFONICA	27,59
TK LARRAUL	250,85
TK LARRAUL	275,19
TK LARRAUL	91,44
TK LARRAUL	41,67
TK LARRAUL	215,73
TOLOMENDI	960,00
ALKAIN	263,22
GOIKOETXEA	9,50
TELEFONICA	252,07
TELEFONICA	99,83
GOT	200,00
KOMUNIKAZIO BIZIAGOA	162,00
GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA	157,42
ELHUYAR	25,00
LARRAULGO HERRI OSTATUA	98,60
MAQUELSA	54,14
EBA ERKIZIA	1.088,26
OSCAR GALINDO	133,10
SANIPLAST	225,51
SANIPLAST	33,82
GAR-BI	62,32



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ARRATE ITURBE	133,90
BASAJAUN LIBURUDENDA	115,43
NAGORE ZABALA	63,75
UNAI UGARTEMENDIA	424,00
MELLIFERA	1.523,44
GOROSTIDI FERRETERIA	66,19
SETALDE GROUP	126,71
BERRI LANTEGIA	282,96
DYA	505,52
ARKAITZ JIMENEZ	229,50
ZU ETA BOK	1.876,43
SECURITAS DIRECT	49,61
SECURITAS DIRECT	50,22
MATTIN GIZARTE ABENDURA	339,20
INFORBIBLIOTECAS	60,58

Udalbatza honek, **aho batez** hurrengo,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **24.229,93** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

LAUGARREN PUNTUA

2022 URTERAKO UDAL LANGILEEN OPOR EGUTEGIEN ONESPENA

Idazkari-Kontuhartzaile andreak Larraulgo udal langileen 2022 ekitaldirako opor egutegiak aurkeztu ditu.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo


ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: 2022 urterako Udal langileek aurkezturiko opor egutegiak onartzea.

BOSTGARREN PUNTUA

2022 URTERAKO ERROITZ BALTZU MUGATUAK, AIURRI HAMABOSKARIRAKO, EGINIKO DIRU-LAGUNTZAREN ESAKERAREN ONESPENA

Ikusirik 2022 ekitaldirako Erroitz Baltzu mugatuak, aurkeztu duela "AIURRI, Beterri-Aiztondoko hamaboskaria"-k egitasmoaren



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

aurrekontua, bertan, Larraulgo Udalarik dagokion ekarpena agertzen da, hau da, 750,00 eurotako ordainketa egitea eskatzen da.

Ikusirik Larraulgo Udalak, 2022 urteko aurrekontuetan, Erroitz Baltzu mugatuari Aiurri Beterri-Aiztondoko hamaboskaria argitaratzeko 750 eurotako partida bat aurreikusi duela.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- "AIURRI, Beterri-Aiztondoko hamaboskaria"-ari 2022 ekitaldirako 750,00 eurotako diru-laguntza onartzea eta ordainketa burutu dadila agintzea. Urte bukaeran, Erroitz Baltzu mugatuak, dagokion kitapena aurkeztu beharko duelarik.

BIGARRENA.- 750,00 eurotako gastua onestea, 2022 urterako udal aurrekontuetako 422.334.00.01 partidaren kargura.

HIRUGARRENA.- Erroitz baltzu mugatuari erabaki honen berri ematea.

SEIGARREN PUNTUA

TOLOSALDEA GARATZEN-i 2022 URTEKO 2. EKARPENA BURUTZEKO ONESPENA EMATEA

Ikusirik 2022ko apirilaren 28an egindako Udalbatzarrean, Tolosaldea Garatzen-i, 2022 urteko ekarpena onestu zuela, guztira, 5.044,00 euro izanik. Bertan, lehen ekarpena burutzea onestu zuen, hau da, 2.522,00 eurotako diru kopurua.


Ikusirik, 2022ko irailaren 30a baino lehen bigarrengo ekarpena burutu behar dela, 2.522,00 euroko diru-kopuruan.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldea Garatzen-i, 2022 urteko bigarren ekarpena burutzeko onespena ematea, 2.522,00 eurotako diru kopuruan..

BIGARRENA: 2.522,00 eurotako gastua onestea, ordainketa 2022ko udal aurrekontuetako 422.430.00.01 kontu sailaren kargura egingo delarik.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ZAZPIGARREN PUNTUA

2021EKO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 2022 ekitaldiko Larraulgo Udaleko Kontu Orokorra 15 lanegunez jende aurrean jarri dela, bere iragarkia Udaleko Iragarki Taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, edonork aztertu eta egoki zituen alegazioak aurkeztu zitzan.

Ikusirik 2022ko ekainaren 2an argitaratu dela iragarkia GAOn eta jendaurreko epea ireki dela 2022ko ekainaren 3tik 23ra bitartean, biak barne, ez delarik bere aurka inolako iradokizun zein erreklamaziorik aurkeztu.

Ikusirik Udaleko Behin behineko Idazkariak Kontu Orokorrari buruz egin duen txostenean dioena.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA.- Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Ogasunen Aurrekontuari buruzkoak, xedatutakoarekin bat etorritik Larraulgo Udaleko 2021 ekitaldiko Kontu Orokorrari behin betiko onespena ematea.


BIGARRENA.- Akordio honen berri Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

2022 URTEAN OPORRAK BAKEAN PROGRAMA BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN ONESPENA

Ikusirik, Tolosako Udalak aurten ere Oporrak Bakean programa antolatu duela, programa honen babesean Saharako hainbat neska-mutil etorriko dira Tolosaldeako familietara uda-aldia igarotzea, bere osasuna eta garapena hobetzeko helburu nagusiarekin.

Ikusirik, Larraulgo Udalak ere parte hartu nahi duela programa horretan.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik, programa hori gauzatzeko hitzarmen bat prestatu dela Tolosako Udalaren eta Larraulgo Udalaren artean sinatzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udalak, Oporrak Bakean programan parte hartzeko onespina ematea.

BIGARRENA: Larraulgo Udalak, Oporrak Bakean programarako, 2022ko udal aurrekontuetako 417.231.00.01 Kontu sailan, 125,00 euro aurreikusi dituela, programak sortarazten dituen gastuekin laguntzeko. Aipaturiko gastua egiteko onespina ematea.

HIRUGARRENA: Larraulgo Udalak eta Tolosako Udalak Oporrak bakean programa aurrera eramateko prestatutako hitzarmena onestea. Maite Arana Perez, Larraulgo Alkatea ahalmentzen da aipaturiko hitzarmena sinatzeko.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Tolosako Udalari ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

GURASO ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA


Ikusirik Larraulgo guraso elkarteak eginiko eskaera, non azaltzen duten urtean zehar hainbat ekintza burutzen dituztela eta hauen kostua finantzatzeko Larraulgo Udalari diru-laguntza eskaera egiten diete.

Ikusirik 2022 urteko udal aurrekontuetako 422.323.00.01 partidari Larraulgo Guraso elkarteari 2.500,00euroko diru-kopuruko laguntza aurreikusi dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo guraso elkarteari 2.500,00 eurotako diru-laguntza ematea, urtean zehar antolatzen dituen ekintzetarako.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENA: 2.500,00 eurotako gastua onartzea, eta bere ordainketa egitea agintzea 2022 urteko udal aurrekontuetako 422.323.00.01 partidaren kontura.

HIRUGARRENA: Larraulgo Guraso Elkarteari jakitera ematea, egin duen gastuen memoria bat eta dagozkien fakturak aurkeztu beharko dituela, Udalak emandako diru-laguntza zurituaz.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri interesdunari ematea.

HAMARGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.

10.1. 2022 URTERAKO TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERAREN ONESPENA

Ikusirik Tolosaldeko Atariak eginiko diru-laguntza eskaera.

Ikusirik, Tolosaldeko Atariak aurkezturiko lankidetzaren hitzarmena 2022 urterako, Larraulgo Udalak goran aipaturiko diru-laguntza eman dezan.

Ikusirik, 2022 urteko udal aurrekontuetan 422.334.00.02 partidaren, Tolosaldeko Atariari 750 euroko diru-laguntza bat emateko diru kopurua aurreikusten dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa


ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Atariari 750,00 eurotako diru-laguntza ematea.

BIGARRENA: Tolosaldeko Atariak aurkezturiko lankidetzaren hitzarmena onartzea 2022 ekitaldirako, Alkatea hitzarmena sinatzeko ahalmentzen delarik.

HIRUGARRENA: 750 eurotako gastua onestea, 2022 urteko aurrekontu orokorreko 422.334.00.02 partidaren kargura.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Tolosaldeko Atariari ematea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

HAMAIKAGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 16.11 orduak direnean Alkate andreak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.